



MODULU BERRIEN ESKAINTZA - 2022- 2023 IKASTURTEA

EUSKARA

HIZKUNTZA MAILA GAURKOTZEKO ETA HOBETZEKO (B2 MAILA): AHOZKO AZTERKETAREN PRESTAKETA.

NORI ZUZENDUA:

Ikastaroa bereziki egokia da euskarako ahozko azterketa prestatu nahi duten b2 mailako ikasleendako, baina baita aurreko maila gainditua duen eta mintzapraktika egin nahi duen edozein pertsonarendako ere, betiere kontuan hartuta maiatzeko azterketan egin beharreko ariketak landuko direla batez ere.

ZER ESKATZEN DEN:

Gutienez B2.1eko maila edukitzea.

MODULUAREN EZAUGARRIAK:

Zenbat saio: 13 saio, bakoitza 2 ordu eta 15 minutukoa.

Noiz: Astean behin.

IKASLE GEHIENEN KOPURUA: 25

HELBURUAK:

- B2ko azterketan zer-nolako ariketak egiten diren kontuan hartuta, haiek gainditzeko behar diren trebetasunak lantzea eta estrategiak garatzea.
- Emozioak, ideiak, esperientziak eta iritziak aise eta natural adierazteko gauza izatea.
- Hainbat egoera sozialetan sorturiko beharrei erantzuteko hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko gai izatea, eta mezuaren eta entzulearen arabera erregistro egokiena hautatuz.
- Gaur egungo gaiei buruzko ideiak eta iritziak zehatz adierazteko gauza izatea.
- Helburu jakin bat duten eginkizun komunikatiboak egoki betetzeko behar diren trebetasunak lantzea.
- Hiztegia aberastea, hizkuntza tarteko mailak eskatzen duen zehaztasunez erabili ahal izateko.
- Ahoskera eta intonazioa hobetzea.
- Zenbait trebetasun batera landuz, bitartekotza gelako jarduera gisa integratzea.

METODOLOGÍA:

- Metodologia aktiboa erabiliko da. Ahozko jarduera guzietan egiazko komunikazio egoerak bilatuko dira, edo egiazkoak izan daitezkeenak, eta, alde horretatik, ikasleendako esanguratsuak eta interesgarriak izan daitezkeenak.
- Ikastaro mota honek, bistan dena, ikasleen parte hartze aktiboa eskatzen du. Gehienetan bikoteka, hirukoteka edo taldeka egiten da lan, kooperazioa bultzatu nahian.
- Hainbat iturritatik hartutako egiazko materiala erabiliko du irakasleak.
- Gelako lanak helburu komunikatibo bat bilatuko du beti.

EBALUAZIOA:

Ikastaro honetan ez da ebaluazio formal zertifikatiborik izanen. Bai, ordea, ebaluazio jarraitua, ikasleen garapena ezagutzeko. Horretarako, irakasleak hainbat mekanismo erabiliko ditu, hala nola berdinen arteko ebaluazioa, zuzeneko behaketa edo atazen helburuak noraino bete diren baloratzea.

ZERTIFIKAZIOA:

- Gutierrez saioen %80ra azaldu diren ikasleek ikastaroa aprobetxatu izanaren ziurtagiri bat jasoko dute, ondorio akademikorik gabea.
- Nahi izatera, ikasleek egokitzat jotzen duten mailaren azterketa egiteko aukera izanen dute (betiere, matrikula librea ordaindu ondotik).

Ikastaro honetako ikasle ofizialen matrikulazioak ohiko bidea bete beharko du, hau da, aurreinskripzioa, zozketa eta online bidezko matrikula.

Informazio gehiago behar izanez gero, Eskolaren web-orrian duzue:

<https://eoip.educacion.navarra.es>